

MERKATU SEGMENTAZIOA

Lehenik eta behin, segmentu orokor bat desberdintzen da gure enpresan; Euskal Herrian bizi edo euskaldunak diren pertsonentzat bideratuta egongo da, gure helburu nagusia euskal kultura eta hizkuntza sustatzea baita, beraz, hauek ezagutzea ezinbestekoa izango litzateke.

Gure enpresaren barnean, eskeiniko ditugun jardueren arabera, zenbait segmentu ezberdinduko ditugu. Hasteko, adinaren arabera segmentua erabaliko dugu, gazteentzako, txikientzako eta familientzako ekintzetan sailkatuz. Bigarrenik, helburuaren arabera, ekintza sozial eta kulturalak desberdinduko ditugu.

Azkenik, bezeroek enpresarekiko izango duten harremanaren arabera, bi taldeetan zatituko ditugu. Alde batetik, bazkideak, hileroko kuota bat ordainduz, zenbait abantaila eskuratuko dituzte: deskontuak eta enpresaren erabakietan parte hartzeko aukera, besteak beste. Bestalde, ez bazkideak, ekintza bakoitzean parte hartzeko ordaindu beharko dutenak, ez dituzte abantailarik izango. Hala ere, hauek, edozein unean bazkide bihurtzeko aukera edukiko dute.

